www.isastegi.com



Hur Astarbe con la sidra espumosa que ha comercializado bajo la denominación Byhur. ASTARBE SAGARDOTEGIA

BYHUR, SIDRA ESPUMOSA DE ALTA GAMA

Champán o cava no era suficiente para brindar en el 450 aniversario de la actividad sidrera del caserío Mendiola, de Astigarraga. La ocasión merecía algo propio, y la familia Astarbe, que regenta la sidrería desde hace varias generaciones, hizo una apuesta por lograr una bebida original. Diez años de ensayos dieron co-

mo resultado el producto Byhur, una sidra espumosa o sagardo-aparduna.

Byhur es el resultado de un proceso de reflexión llevado a cabo por los Astarbe a lo largo de la última década. «Con el relevo generacional decidimos que debíamos invertir en imagen, en I+D+I, y elaborar un producto nuevo, una bebida original, inexistente en el mer-

cado, para diferenciarnos del resto del sector. Hace ya una decena de años comenzamos con los ensayos, y así nació Byhur, una sidra espumosa que hemos sacado al mercado coincidiendo con los 450 años de Mendiola, nuestro caserío», explica Hur Astarbe, responsable de la sidrería.

Para elaborar Byhur se parte de una sidra seca, sin acidez vo-



Astarbe mantiene sus botellas habituales. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

látil, y elaborada con tres variedades de manzana que, de momento, no ha trascendido de cuáles se trata. El pommage es secreto. Luego se aplica una re-fermentación en botella con el método tradicional, mediante aportación de levaduras nuevas y de un licor azucarado (licor

de tiraje), que durará varios meses. Los posos producidos se limpian inclinando y girando la botella boca abajo, y aplicando el degollamiento para quitar los mismos de la botella. Luego se añade el licor de expedición para compensar el líquido eliminado, y finalmente se coloca el característico tapón de corcho natural, sujetando con un bozal de alambre o una grapa metálica. Es un proceso largo y costoso que influye, evidentemente, en el precio de venta.

«El resultado es una bebida seca con ligeros toques amargos y con buena expresión de los taninos. Al descorchar, la espuma está perfectamente controlada en la botella, en el vaso está muy equilibrada en cantidad suficiente, sin exceso. Hemos elaborado 5.000 botellas y nuestra intención es seguir produciendo año a año, ya que ha tenido buena acogida. Tanto esfuerzo merece continuar, y pensamos -añade Hur Astarbe-, que esta nueva bebida realzará y dignificará nuestra oferta de toda la vida».

Esta sidra espumosa se presenta en dos versiones, en botellas modelo cava de diseño distinto: «Byhur urtebetekoa», con doce meses de crianza y 7,5º de graduación alcohólica, y «Byhur biurtekoa», con 24 meses de crianza y ligeramente más alta de graduación alcohólica (8º).

De momento, ya ha sido galardónada en un concurso internacional celebrado recientemente en Asturias.

Papel destacado de las mujeres

Los propietarios del caserío Mendiola se han dedicado a la elaboración y comercialización de sidra al menos desde el siglo XVI, como revela una investigación histórica. Hace 450 años sus propietarios fueron Martín de Aizarna y su mujer Catalina de Alcega. La familia Astarbe llegó a Mendiola el 17 de noviembre de 1823. Agustín Antonio Astarbe se instaló en el caserío tras contraer matrimonio con María Josefa Ramona de Zubiarrain.

En estos casi cinco siglos de historia, Mendiola ha estado entre los principales productores de sidra natural de Astigarraga, y sus mujeres han tenido un papel destacado en su historia. En siete ocasiones el heredero del caserío fue una mujer, y alguna de ellas llegó a enfrentarse a las autoridades. Así, en 1765, la entonces dueña del caserío, María Josefa de Larramendi, fue protagonista de un suceso singular con las autoridades locales. No solo se negó a vender su sidra al pre-

cio establecido por el Ayuntamiento para las «suertes o tantas de ese ejercicio», sino que, además, quebrantó la orden que le prohibía salir de la Casa Consistorial y escapó para eludir la prisión.

Sin duda, la señora era una mujer de carácter, ideas firmes y grandes recursos. La fuga y posterior ocultamiento lo debió de hacer muy bien, pero no le libró del embargo de dos cubas de sidra, tal como recoge un documento del Archivo General de Gipuzkoa.

Petritegi

Sagardogren mundua... beste ikuspuntu batetik
El mundo de la sagardoa... desde otra perspectiva

www.petritegi.com - Tel: 943 457188 - 20115 Astigarraga Gipuzkoa

SAGARDO PERFEKTUA LORTZEKO SAGARRAREN BILA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Villabonako Otarlarrean duen esperimentazio finkan beste txertaketa handi bat egingo dute martxoan. Horrela, ehun bat sagarrondo mota izatera iritsiko da bertako sagardia. 2013ko martxoan jarri zen martxan Foru Aldundiak sustaturiko eta Fruitel Gipuzkoako frutagileen elkarteak kudeatutako proiektua. Bi helburu nagusi ditu ekimenak: alde batetik, sagardoa ekoizteko herrialdeko sagarrak onenak bilatzea, honela, bertako sagardo ekoizpen osoa lurraldeko sagarrekin egin ahal izateko. Bigarren helburua gaixotasunik gabeko landareak eskaini ahal izatea da.

Hasieratik buru-belarri dabil bertako lana ikuskatzen Aitor Etxeandia, Sagarraneko teknikaria. Emaitzak ikusteko goizegi izan arren, gustura dago egindako lanarekin. «Arbolen hazkuntza prozesuak mantso doaz, ez da baratzean bezala ziztu bizian ikusten duzuna emaitza; urtero hazkunde txiki bat baino ez da ikusten».

Teknikariaren arabera, emaitzak ikusten hasteko bost urte inguru beharko dira. Kontuan hartu behar da, probetan lorturiko emaitzak estatistikoki baliagarriak izateko hiru urtez errepikatu behar direla. Alta, horrek ez du esan nahi bertako langileak gelditu daudenean. «Txertaketak egin ahal izateko arbola sano batetik hartu behar dira laginak; horietako batzuk erraz bilatzen dira hainbat tokitan daudelako, beste batzuk, ordea, ale bakan batzuk dira, leku konkretu batzuetan baino aurkitu ezin direnak».

Denbora hau igarota, gauzak erraztuko direla dio Etxeandiak. «Errazagoa da horrela lan egitea; horrez gainera, arborek duten jarrera ere aztertu ahaliko dugu».

Egun, mila hektarea sagardi inguru daude Gipuzkoan. Urteroko sagardo ekoizpena bede-

ratzi milioi litrokoa dela kontuan hartuta, gutxi dela deritza Foru Aldundiak. Ekoizpen hori indartzeko saiakerak bi helburu ditu: alde batetik, sagardoren kalitatea hobetu nahi da; bestalde, nekazaritza eta abeltzaintza sektorea errentagarria bilakatzea, modu honetan gazteak ekoizle bihurtzea bultzatzeke.

GIPUZKOAKO SAGARRAREN ALDE

Gipuzkoako Foru Aldundia lurraldeko sagarrarekin eginiko sagardoaren aldeko neurriak hartzen ari da azkeneko urteetan. Otarlarreko esperimentazio finkan gainera, aipatzeok dira bestela ere egiten dituen saiakerak; sagarrean eragina duten gaixotasun eta izurriteak ekidin edo kontrolatzeko edota, sagarrondoak landatu nahi dituztenei laguntzak eskaintzen dizkie Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismo Departamentuak.

Otarlarreko esperimentazio finkan proiektuarekin, Gipuzkoako sagardoaren kalitatea eta bertako sagarraren ekoizpena handitzeko aurrerapauso erraldoia eman da. Euskal Herriko beste txoko batzuetan (Aramaio, Sartaguda, Iruña, Doneztebe...) emandako pausoa eman da Villabonakoarekin.

Kalitateko sagarrak lortzea gainera, sagarrondo osasuntsuak lortzea da helburua, bakterio-suri gabekoak interesatzen zaizkie Otarlarreko langileei, batez ere. Hori lortzeko, 27,5 x 8 metro koadroko negutegi bat dago eraikinean. Bertatik aterako dira ama landareetarako (13 mota daude, egun) txertoak.



Villabonako Otarlarreko esperimentazio finkan dagoen sagardia ehun bat sagarrondo mota izatera iritsiko da.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK
UZTITAKO ARGAZKIA

Ikerketak Nafarroan ere

NUPEko ikertzaile talde batek gaixotasunekiko erresistentzia aurkeztzen zuten Nafarroako hogeita bi sagarrondo identifikatu zituen zortzi urteko ikerketa baten ostean. Ikerketaileen arabera, sagarrondo hauek bakterio-sua eta sagarren orbantzea ekiditen dituzte; sagardietan arazo gehien eragiten dituzten gaixotasunetako bi dira. Lehenbizikoa *Erwinia amylovora* bakteriak eragiten du, eta sagarrondoak osorik inautera derrigortu ohi du. Sagarren orbantzea *Venturia inaequalis* onddoak eragiten du, eta fruituak eta hostoak kaltetzen ditu.

Ikerketa Jesus Murillo Martinez Landare Ekoizpen katedrarenak zuzendu du; Murillo NUPEko Laborantza babesen ikerkuntza taldeko arduraduna ere bada. ITGAK Sartagudan duen bildumako 253 aleetako (Nafarroakoak) 103 sagarrondo aztertu ditu, eta horietako 22k eman zituzten emaitzarik hoberenak.

Sagardo ekoizleek interesa agertuz gero, horrelako ikerketa gehiago egiteko aukera kontuan hartzen du Jesus Murillok. Hala ere, egun gaia apartakuta dagoela onartu du ikerlariak.

SUSTRAITIK JAIOA ANTZINA ENBORRA SAGAR BERRIAK
SAGARDOA SIDRA 2014
KUPEL-ZAHARREKO ARDO GAZTEA SUSTRAITIK JAIOA

2014 2014 2014 2014

GI
PUZ
KOA

2014 2014-2014 2014 2014 2014

GIPUZKOAKO SAGARDOA
KULTURA EDANGARRIA
IKERKETA INBIBITITU ETA
NEKAZARITZAREN ALDE EGITEN DUGU

SIDRA DE GIPUZKOA
LA CULTURA A SORBOS
INVERTIMOS EN INVESTIGACIÓN
Y APOYAMOS LA AGRICULTURA

SAGARDOA

BERRIA

URRIAGOA, BAINA BIKAINA DA AURTENGO BIZKAIKO SAGARDOA

Herrialdeko sagardo naturalaren aldeko apustua egin du Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak; honela, herrialdeko sagarraren eta bertako sagardo kultura propioa sustatuko dute. Kultura hori botilako sagardoan oinarritzen da, elkarteko lehendakari Jose Antonio Zamalloak azaldukoaren arabera. «Kontsumitzaileek ezberdintzen dute nor den ekoizlea eta nor ez, baina badugu kezka bat», azpimarratu du zornotzarrak.

Egun, hamar dira Bizkaian sagardo naturala merkaturatzen duten sagardogileak: Etxebarría (Gatikako Txone-Barri base-rrian), Laneko (Gizaburuagan), Uxarte (Zornotzan), Malgarrazaga (Gatikan), Axpe (Markina-Xemein), Kandi (Muxikako Ametsebarri auzoan), Laka-erdi (Berriatuko Merelludi auzoan), Erdikoetxe (Lezamako Goitioltzan), Isasi (Iurretan) eta Sebastianeko (Mendexan), hain zuzen ere. Hauetako hiruk txotx zerbitzua ere egiten dute.

Sagardo naturala botilaratua saltzeaz gainera, jatetxe zerbitzua eskaintzen duen horietako bat da Zornotzako Uxarte sagardotegia; eta bertako nagusia, Jose Antonio Zamalloa, Bizkaiko Sagardoa elkarteko lehendakaria ere bada. «Bizkaiko sagardogileak batzen gaituena botila da».

SAGARDOGINTZA HAZTEN

Euskal Herriko beste herrialde batzuetan baino tradizio apalagoa izan arren, hazten dabil Bizkaiko sagardogintza Zamalloaren ustetan. «Argi dago Bizkaian ez dagoela Gipuzkoako 'boom'-a, baina hemen ere badago sa-

gardo edatea eta sagardotegira joatea gustuko duen jendea», argudiatu du zornotzarrak.

«Ez dago Gipuzkoan dagoen mugimendu indartsu hori, baina badago zerbait, eta guk hori aprobetxatzen dugu». Horrez gainera, tradizioa «berriagoa» izatea justifikatzen du elkarteko lehendakariak. «Euskal Herria ez da handia, eta neurri batean inguruetako tradizioak kontuan hartzea edo jendeari eskaintzea ona da; nik 18 urte daromatzat honetan, eta bilakaera argi bat ikusi dut».

Bizkaian, ekoizleen artean ardura sortu duen bestelako «fenomeno» baten agerrera azpimarratu du Zamalloak honekin batera. «Sagardoarekin edo sagarrarekin harreman handirik ez duten eta horrela aditzera ematen duten jatetxe ugari dago hemen inguruan. Zorionez, kontsumitzaileek ezberdintzen dute gure produktua; kezkak



hor jarraitzen du, ordea». Zornotzarraren hitzetan, bezeroek oro har aintzat hartzen dute sagardotegiek bertako sagarraren alde egiten duten hautua, baita hartzen duten lan handia eta duten ezagutza. «Sagardotegi legez funtzionatzeak lan handia

eskaten du, eta ekoizle garen neurrian, hori kontuan hartzeko eskatzen dugu».

Esan bezala, Bizkaiko Sagardogileen bereizgarri nagusia tokiko sagarrarekin eginiko sagardo botillaratua izan arren, aurtengo honetan txotx hasie-

Sagardotik eta sagardoarentzako

Sagardotegiak Euskal Herria bisitatzen duten turistentzako erakargarriak bilakatu dira azken aspaldian. Erreferente turistikoa gisa aurrerapauso bezala, Bizi Sagardotik elkartea aurkeztu zuten uda aurretik. Mota ezberdinetako eragileek sorturiko elkartea da, eta besteak beste, Euskal Herri osoko 67 sagardogile, garapen agentziak, museoak eta herriak bildu dira bertan. Arantxa Eguskiza da elkarteko lehendakaria.

Aurkezpenean adierazi bezala, sagardoaren historia zaharra da, eta horri merezi duen garrantzia aitortzea da elkartearen asmoa. «Helburu garbia dugu: sagardoaren kultura eta turismoa sustatzea». Esan bezala, elkartea osatzen duten eragileek elkarlana baliatuko dute beraien arteko harremanak sendotzeko eta elkar-guneak bilatzeko.

Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko lehendakaria aurkezpenaren egon zenetako bat da, eta bere hitzetan, sagardoa zein sagardotegiak produktu interesgarriak dira bisitariarentzako. «Ez dira bisita gidatu hutsak, proposamen turistikoa oso interesgarria da. Batek daki zenbat kultura igaro den sagardotegietako horretatik, zenbat trikitilari, zenbat bertsolari...».

Bizi Sagardoa elkarteko lehendakari Eguskizaren iritziz, berriz, txotx ekitaldia bakarra da munduan. «Aberastasuna sortzen dugu, eta herri-gintza egiten dugu; sagardoa euskaldunon edaria da».

Aurrera begira, «sagardoaren ibilbidea» delakoa sortzea du elkarrekin esku artean; zazpi herrialdeak sagardogileen bidez lotuko dituen bide bat.

Sagardotegi mugikorak



Egin Txotx zure hemlan!



www.trikikupela.es
info@trikikupela.es
628 52 80 97



Montorra, 6. 48340 ZORNOTZA - 94 630 88 15 - www.uxarte.com

UXARTE SAGARDOTEGIA

BASERRIKO OKELA ETA OILASKOA - SAGARDOA URTE OSOAN TXOTX-etik
BENETAKO SAGARDOTEGIA Deitu, etorri eta egiaztatu.



Jose Antonio Zamalloa, Bizkaiko Sagardo elkarteak presidentea eta Uxarte sagardotegiko jabea.

Luis JAUREGIALIZO | ARGAZKI PRESS

rako jaialdia egingo dute zerbitzu hau eskaintzen dutenen artean. «Bizkaian beti egin izan dugu urteko botilaren aurkezpena, aurten, ostera, txotx denboraldiaren hasiera ospatzeko jaialdia ere egingo dugu». Esan bezala, elkarteak osatzen duten hamar ekoiizleetatik hiruk eskaintzen dute zerbitzu hau. 2014 honetako sagardoa aurkezteko, Uxarten antolatuta dute txotx jaialdia, datorren asterako. «Kopuru al-

detik txikiak gara, baina aurturten Bizkaian ere egongo da txotx hasiera ofiziala».

EGURALDIA ETA UZTA

Iazkoa ez bezala, aurtengoa uzta urria izan da, Zamalloaren hitzetan. «Landaketa batzuetan ondo egon da, baina beste batzuetan oso gutxi; sagar mota batzuen kasuan loraldi osoa galdu zen». Uxarte sagardotegiaren kasuan, 30.000 litro sagardo ekoiztu dituzte, horretarako 45 tona sagar erabilia. Jakina den bezala, sagarraren uztak ziklikoak dira, eta urte oparo baten ostean eskasago bat etorri ohi da. «Nirean erdia baino gutxiago atera dut, horregatik, kanpotik ekarri behar izan dut sagarra».

Zamalloak sagar beharra duenean, inguruko produktoreei erosten die, aurturten egin duen bezala. «Gutxi ekarri ohi dut inguruko baserrietatik, baina aurtengoan ekarri behar izan dut».

Uzta baldintzatu duen faktore nagusia eguraldia izan da, sagardogile bizkaitarraren esanetan. Udaberriko hotzen ondorioz, sagar ugari galdu egin zen zuzenean. «Heldu zirenak ere ez ziren behar bezala heldu berandu arte», azaldu du Zamalloak.

Udako eguraldi onak eta berak sagarrari mesede egin arren, ez zen nahikoa izan frutak zuen atzerapena gainditzeko; hala ere, hau ez da oztopo izan zukuak kalitate onekoa izateko. «Sanitarioki ongi zegoen sagarra, eta ekoizpenaren aldetik, urriaren hasieran eginiko muztioek erakutsi zuten ona izango zela». Urriko beroaldiek ere asko lagundu zuten hartidura fasean. «Bodega barruan oso azkar egin zen hau, eta aurreratu egin ziren lehenbiziko fase horretako sagardoak».

Edariaren kalitatea, berriz, orokorrean ona izango dela dirudi.



Bizkaiko sagardo berria, dastatzeko prest.

M. RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Zornotzarraren arabera, sagardo garbia izan da (usainari dagokion datua da), guztiz «arina» izango ez den arren. «Tanino aldetik ongi dabil, gorputza izango du, beraz». Sagardoak hartidura alkoholikoa nahiko azkar egin zuen, horrela ahalbidetuz azukre gehienak ere azkar galtzea. Neguko hotzarekin berriz, mantsotu egiten da prozesua. Lehenengo zatiko elaborazio hori garrantzitsua da, sagardoaren ezaugarriak markatzen ditu-eta.

Bizkaiko sagardogileek 300.000 litro sagardo inguru ekoizten dute, horretarako bertako sagarrak erabilia. Ekoizpen hori lortu ahal izateko, 400.000 kilo sagar inguru behar dituzte ekoizleek. Bertako sagarra baino ez dute erabiltzen Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak kideek. Erabaki honen ondotik, Eusko Label jurtagiria dute sagardogile gehientsuenek; sagardoa egiteko sagarren %100 bertakoak direla ziurtatzen du zigilu horrek.

Etorkizunean ekoizpenak nabarmen gora egingez gero zer egin erabaki gabe badute ere, ildo bera jarraitzeko asmoa agertu dute behin baino gehiagotan.

TXOTX DENBORALDIAREN JAIALDIA. «Bizkaian beti egin izan dugu urteko botilaren aurkezpena; aurten, ostera, txotx denboraldiaren hasiera ospatzeko jaialdia ere egingo dugu».

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Bizkaiko sagardoaren alde egin, anima zaituz

Elizate

Laka-Erdi Sagardoa
Juan Amallobeta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Erleta

Etebarria Sagardoa
Itxar Etebarria
Tel.: 94 674 20 10

Errika

Maizarrazaga Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

Erizabuzana

Laneko Koop
Leartibal Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Erreola

Trazole Sagardoa
Sonia Isasi
Tel.: 94 681 60 44

Erreola

Erdikoetxe Sagardoa
Andoni Ojanguen Zoroza
Tel.: 94 457 32 85

Errika

Markina-Xemein
Ape Sagardoa
Jose Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Errika

Sebastiako Sagardoa
Anton Aresti Eiguren
Tel.: 94 684 26 42

Errika

Kandi Sagardoa
Sat Kandi
Tel.: 94 625 33 82

Errika

Uxarte Sagardoa
Jose Antonio Zamalloa
Tel.: 94 630 88 15



bizkaiko sagardogileak

ARABAKO SAGARDOGINTZA INDARTZEKO APUSTUA EGIN DUTE BERTAKO EKOIZLEEK



Azkenaldiko sagar uzta pobreenetakoa izan dela aitortu du Juanjo Peciña Aramaioiko Iturrieta sagardotegiko arduradunak. Hala ere, azken urteetan erakutsitako kalitate mailari eutsiko diola dio Peciñak. «Puntu on batean iritsiko da».

Bertako sagardo kultura indartzeko asmotan, Arabako frutarekin lan egiteko joera izan dute ekoizleek azken urteetan. Lehenasuna eman diote aurren ere herrialdeko sagarrari, alta, jasotako uzta «eskasak» baldintzatu egin ditu ekoizleak, eta horrek kanpoko sagarra harzera derrigortu ditu aurren ere. «Orokorrean oso uzta eskasa izan da Araban, eta horregatik kanpotik hartu behar izan dugu sagarra; Arabakoaz gaine-

ra, Bizkaiko ere erabili dugu», azaldu du Peciñak. Guztira, 20.000 litro sagardo ekoitzi dituzte Araban, horretarako 35 tonna sagar erabilia. Udan izandako eguraldi ona ez da nahikoa

izan loraldia salbatzeko. «Euri pilo bat egin zuen udazkenean, eta euriarekin eta hotzarekin ez zen mukurutu; lorea ez zen ondo atera, eta ondorioz, fruitua ere ez».

Aramaioiko Iturrieta sagardotegian egin zuten, ia, Arabako txotx denboraldiaren jala.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Baserritarrak animatzen ari dira sagardiak ezartzera»

Bost urte bete ditu Arabako Sagardogile Elkarteak, eta oraindik bide luzea egiteko dutela liritzi arren, pozik dago Peciña urteotan lorturikoekin. «Baserritarrak animatzen ari dira sagardiak ezartzera». Ehun bazkide inguruk osatzen dute elkarteak; txotx zerbitzua duten bi sagardotegi profesionalaz - Iturrieta eta Trebiñu- eta sagardo botilaratua eskaintzen duen Borobiaz gainera, bere kontura sagardoa egiten duten baserriak ere ez dira gutxi. «Zaila da hori kalkulatzeko; 500 eta 2.000 litro sagardo bitartean egiten duten

baserritar ugari dago». Araban landak izan duen garrantziari egotzen dio ohitura hori Peciñak.

Bidean agertu zaien oztopo nagusia erakundeen utzikeria dela deritxo Peciñak. «Bitarteko-rik ez dugu, eta horrek asko baldintzatzen gaitu; hori dela-eta, erakundeei gai hau seriooki hartzeko eskatzen diegu; Araba leku egokia da sagarrondoak landatu eta sagardiak osatzeko. Ongi lan eginez gero, hemendik urte batzuetara bertako sagarrak hartu ahal izango ditugu, Europako erdialdetik ekarri beharrik gabe».

Egun, hiru sagardotegik osatzen dute Arabako Sagardogile Elkarteak: Iturrieta sagardotegia, Aramaion (Peciña bera da jabea); Trebiñu sagardotegia, Askartza herrian; eta Borobia sagardoa Ozetan. Azken honek botilaratu egiten du edaria, eta beraz, ez du txotx zerbitzua eskaintzen. Aurtengo txotx denboraldiaren irekiera Trebiñu sagardotegian izango da, datorren asteburuan; herriko talde bat arduratuko da, gainera, lehen barrika zabaltzeaz.

ARDOAREKIN ELKARLANEAN

Gipuzkoakoaren mailara iritsi ez arren, pixkanaka hedatzen ari da sagardoaren kultura Araban. Ukaezina da herrialdean ardoak duen nagusigoa, alta, bertan ekoizten den sagardoaren kalitatea onartzen hasi dira kontsumitzaileak, eta Peciñaren arabera, gero eta jende gehiago animatzen da sagardoa edatera. «Orokorrean, gero eta jende gehiago animatzen da sagardoarekin».

Arabako sagardoak bertako ardoarekin duen harremana, lehia izaerakoa baino, elkarlanekoa dela deritxo Iturrietako sagardotegiko arduradunak, gainera. «Munduko ardurak onena dugu hemen, eta horretara ohituta gaude, ulertzen dugu jendea sagardora pasatzea kostatzea; ez dugu ardo kompetentzia legez hartzen».

Ohituraren aldaketaren erakusgarrietako bat iaizko abenduan ospatu zen Ardoaraba azoka dela deritxo Peciñak. «Arabako ardo onena eskaintzen da bertan, eta aurren [iaizko edizioa], nobedade gisara, Arabako sagardoa promozionatzeko pare bat stand utzi dizkigute». Azokak iraun bitartean hurbildutako jende kopuruagatik eta izandako harreragatik gustura agertu da aramaioarra. «Arabian jendeak gustura edaten du ardoa, baina konturatu da bertako sagardoa ere ona dela».

Alta, sagardo ona egiteko, beharrezkoa da sagar onak edukitzea, eta hori da orain Arabako Sagardogile Elkartearen kezka nagusia. Halere, pozik agertu da Peciña, sagardoaren kulturen indartzearekin. «Bertako sagarrak onenekin eginiko sagardo onena lortzea da gure helburua». Arabako sagar mota ezberdinen haztegia du elkarteak Aramaion.

Txotx egin!!

Cenas con servicio de autobús

Iturrieta sagardotegia



Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Arabian, arabako sagardoa!



Egin txotx!!
Cenas con servicio de autobús

TREBIÑU Sagardotegia

945 244 852 657 736 599 / ASKARTZA - TREBIÑU

Borobia Sagardotegia no es solo un caserío donde se produce sidra de manera ecológica, sino también la primera sidrería en elaborar sidra con certificación ecológica en la CAV. Desde hace más de dos décadas trabajan en Ozaeta para conseguir sidra ecológica alavesa, según recuerda Koldo López Borobia, propietario de la sidrería. Desde siempre han apostado por elaborar sidra «de la tierra», con manzanas alavesas, y hacerlo desde el respeto hacia el medioambiente. Por ello, aunque el certificado lo obtuvieron en el año 2000, desde el principio han elaborado la sidra mediante la misma metodología. «Es extraño que seamos los primeros, porque había gente antes que nosotros haciéndolo, pero la primera certificación la recibimos nosotros», señala el propietario.

Ese gesto de humildad alaba la trayectoria de la sidrería, la cual es destino de visitas tanto por parte de turistas como de productores interesados en la elaboración de la sidra ecológica. «Había gente antes que nosotros, y detrás nuestra vendrán otros nuevos; yo mismo anduve visitando y haciendo preguntas». López Borobia hace referencia de este modo a Angel Alvarez, sidrero de Beruete. «El me metió en este mundo de la sidra y aprendí mucho de él; ahora ya no ejerce -precisa-, pero él fue el primer elaborador de sidra ecológica en Euskal Herria».

Además de Angel Alvarez, López Borobia visitó diversos caseríos de la Lautada alavesa en busca de información, y en concreto sobre las mejores manzanas de la zona. El manzano de Borobia comenzó con una docena de manzanas y en la actualidad, ha duplicado ese número. «Son demasiados de cara a producir sidra, pero nosotros los utilizamos para hacer pruebas», informa López Borobia.

TRADICIÓN FAMILIAR

Situada en Ozaeta, el trabajo que se realiza en el caserío se queda en familia. López Borobia, de profesión docente, y biólogo de formación, se lanzó junto con su hermano, ingeniero agrónomo, a hacer manzana para sidra. «Nosotros siempre hemos trabajado en familia; es una ayuda indispensable», asegura.

La apuesta de López Borobia es realizar sidra de manera ecológica y en cantidades pequeñas, y se muestra orgulloso de mantener su iniciativa. «Nosotros no queremos crecer -agrega-, tenemos una explotación adecuada a nuestras posibilidades». En el caserío manejan dos hectáreas de manzanales, además de seis hectáreas más que se usan para el denominado «fin de ciclo». Con esto, la familia López Borobia se las ha arreglado en 2013 para recoger 3.500 kilos de manzana, y poder producir así 1.500 litros de sidra. «Para un productor es una cantidad

BOROBIA, LA GRANDEZA DE UNA PEQUEÑA PRODUCCIÓN



muy pequeña -reconoce-, pero nosotros lo hacemos de esta manera».

La sidra Borobia, al ser elaborada con manzanas tardías suele aguantar bien el paso del tiempo. Si todo va bien, hacia mayo-junio el caldo suele estar listo para embotellar. A diferencia de las sidras convencionales, donde la relación litro-kilo suele ser superior al 65%, en la sidra ecológica Borobia suele ser un 50% de cada. «Al tener menos agua, el mosto es muy rico en principios activos», explica Koldo López, al tiempo que destaca que es una sidra de mucho cuerpo, con una amplia gama de sabores y de un color alto.

Koldo López Borobia escancia sidra en el caserío que posee en la localidad de Ozaeta, situada a pocos kilómetros de Gasteiz.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Tenemos un mercado cercano»

Borobia vende la mayor parte de su sidra ecológica directamente desde casa, pero esta no es su única vía de comercialización. En la capital alavesa se puede comprar en diferentes establecimientos, bares o tiendas ecológicas, y también se puede encontrar en pueblos de la Lautada, como Agurain. «Tenemos un mercado cercano y local», constata López Borobia.

En años en los que ha habido una gran cosecha, han recorrido algunas de las ferias que se celebran a lo largo de Euskal Herria. «Alguna vez nos han ofrecido probar en otros mercados, como por ejemplo en EEUU, pero no lo veíamos ni real ni viable; no nos parece interesante», resume.



Pero el objetivo de la casa Borobia no es solo vender sidra ecológica. Así, López resalta el apoyo recibido desde el Ayuntamiento de Barrundia desde el primer día; con esta colaboración se busca fomentar el turismo enológico tan de boga en estos últimos tiempos, además de difundir los valores de la producción ecológica de la sidra.



Sagardo botila urte osoan salgai

LARRE-GAIN

Tolare - Sagardotegia


Larre-Gain Baserria
 Tel. 943 55 58 46 • 616287867
 EREÑOTZU • HERNANI



Pisado de manzanas durante la fiesta de la Kirikoketa, celebrada el pasado mes de noviembre en la localidad baztanesa de Arizkun.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

LA SIDRA NAVARRA MANTIENE EL LISTÓN ALTO PESE A LA ESCASA CANTIDAD RECOGIDA

Al igual que en el resto de Euskal Herria, la sidra de Nafarroa llega con el handicap de la falta de manzana debido al temporal de otoño. «En primavera no paraba de llover, y como resultado, no cuajó la cosecha», explica Jesús Ángel García, presidente de Tolare, la asociación de sidrerías de Nafarroa. Debido a ello, ha habido poca fruta. Por ejemplo, en el caso de Larralde (sidrería ubicada en Lekarotz y de la que es dueño García), se han recogido alrededor de 6.000 kilos de manzana, la mayoría de la primera floración.

El calor de octubre propició que se adelantara la sidra de esta temporada. «En época de recogida y fabricación hizo calor, y eso disparó las fermentaciones», recuerda García. Aun así, la clave han sido los frutos recogidos en la primera floración: «Las manzanas que eran de floración temprana sí cuaja-

ron, pero no el resto». Esta situación se ha repetido, por desgracia, en todos los herrialdes. «En algunos sitios ha sido mejor, porque fue el año pasado cuando no hubo, pero en general ha habido poca manzana», constata.

En Nafarroa se producen cerca de 200.000 litros de sidra al año. En el caso de no recoger la suficiente manzana como para llegar a esa cifra, se suele traer de fuera. «Tienes que producir la cantidad suficiente para abastecer a los clientes, tanto si ha habido suficiente manzana como si no. Yo llevo desde 1993 trabajando en la sidra ecológica, y eso condiciona la producción. Si por lo que sea no hay suficiente manzana –precisa–, hacemos parte en ecológico y parte en convencional».

«CON MUCHO CUERPO»

La escasa cosecha de manzana autóctona de esta temporada ha provocado que los sidreríos hayan tenido que importar

manzana de fuera, pero esto es algo con lo que ya contaban los productores navarros. «Los manzanos son cíclicos, por lo que tras un año de mucha manzana, tocaba uno con menos». Pero, independientemente de la cantidad obtenida, los sidreríos defienden que esto no afecta a la calidad final del producto. De hecho, este año la sidra navarra viene con mucho cuerpo. «Va a tener más cuerpo que estos últimos años», aseguran.

Tras la recolecta y selección, el zumo de manzana obtenido será prensado de nuevo con el fin de introducirlo posteriormente en las kupelas, donde tendrán lugar los diversos procesos de fermentación. El calor de principios de octubre, época de recogida y fabricación, condicionó este proceso. «Las fermentaciones fueron disparadas al principio, por el calor, aunque a finales de octubre y noviembre se pararon un poco», recuerda García.

Rotación para celebrar el inicio del txotx

En total, son cinco los productores de sidra y sagardotegis que se enmarcan en la asociación Tolare: Larralde, sita en Lekarotz; Linddurrenborda, en Lesaka; Martixonea, en Aldatz; Behetxonea, en Beruete, y Toki Alai, en Lekunberri. En Linddurrenborda se inauguró la nueva temporada de txotx el pasado día 10, con la presencia de representantes del resto de sidrerías y conocidos personajes del mundo del deporte y de la cultura. Las demás sidrerías abrirán sus puertas este mismo fin de semana.

Las sidrerías de Tolare se rotan para celebrar el inicio del txotx. García, presidente de la aso-

ciación desde hace muchos años –«ni me acuerdo ya»–, señala que el reducido número de productores que forman Tolare facilita la toma de decisiones. «Haciendo las cosas en equipo es menos complicado», resume.

De esa unión han nacido diferentes proyectos; entre otras cosas, Tolare organiza durante el año diferentes actividades para dar a conocer la sidra de la zona. A su vez, han participado en la creación de la asociación Bizi Sagardoa, que reúne a 67 sidrerías con el propósito común de impulsar la cultura y el turismo de la sidra.



LA CASONA
ASADOR - SIDRERÍA

Menú fin de semana 28€ (iva incluido)

Menú de sidrería 28€ (iva incluido)

© 948 186 713 · Pueblo Viejo. (BARAÑAIN)
www.lacasonarestaurante.net

Zein da sagardo ekologikoaren berezitasuna?

Betiko sagardogintzaren antzerakoa da; ezberdintasun nagusia sagarra da. Sagardo ekologikoa egin ahal izateko, sagarra era ekologikoan hazi behar da. Neurri zehatz batzuk betetzen dituzten produktuak botatzen zaizkio; ez herbizidarik, ez insetizidarik gabe hazitakoak, adibidez. Nafarroako Gobernuak azterketa ugari egiten ditu, eta lurra, hostoa eta produktua (sagardoa) kontrolatzen dituzte; gobernuan neurketa horiek egiten dituen organo zehatz bat dago.

Zein asmorekin sortu zenuten Nafarroako Sagardogileen Elkartea?

Hasiera batean, guztiaren berri izateko, eta batez ere, guztiok batera aritzeko. Gure arteko harremanak sendotu ditugu horrela, eta erakundeekin hitz egiterakoan ere ordezkari bat osatu ahal dugu modu honetara; orain, adibidez, Bizi Sagardoa elkarteak sortu dugu Euskal Herri osoko elkarteek, gure produktua defendatu eta gauzak ondo egiteko. Bakoitzak bere aldetik eginez gero zailagoa da, ezberdina.

Orain dela urte asko batu ginen, ez dakit zenbat, eta modu asanblearioan funtzionatzen dugu. Bostok elkartu, eta zer eta nola egin erabakitzen dugu; asko ez garenez, horrela egin dezakegu. Sagardiei buruz hitz egiten dugu, tratamenduak, sagardoaren garapena... horrelako kontuak. Adibidez, sagarra erosi behar dugunean batera egiten dugu, abantailak dituelako.

Baztan eta Malerreka inguruan sagardi ugari dago, ezta?

Ni 1993. urtean hasi nintzen honetan. Garai horretan Baztan eta Malerreka inguruan sagar motak galitzen ari ziren, eta orduan, mota ezberdinak bilzen hasi ginen; aztertzeraz eramaten genituen sagar horiek, sagardoa egiteko onenak zeintzuk ziren jakiteko. Baztango azken sagardogileekin ere hitz egin nuen, eta sagardo mota batzuk berreskuratzea lortu genuen. Onak iruditzen zitzaizkigunekin sagar motekin txertaketak egiten genituen, bai sagardotarako, bai edukitze hutsagatik. ITG-rekin karakterizazio programaren bat ere burutu genuen, sagarrak egokienak zeintzuk ziren jakiteko, eta hainbat ale atera ditugu hortik. 1993an, adibidez, NARBARTOKO gorria izenarekin ezagutzen dena atera genuen; izenik ez genion aurkitzen, eta hori jartzea erabaki genuen. Aztertu ondoren, txertaketa egitea erabaki genuen, eta sagardiaren zati bat mota honetakoa dugu. Azidotasun maila egokia du, baita tanino maila ere. Egun, EHU azterketak egiten ari da sagar mota honen inguruan, besteak beste.

Sagardogintzarako ohitura dago Nafarroan? Eta sagardotegietara joatekoa?

«Oraindik etxean sagardoa egiten duten baserri ugari dago Baztanen»

JESUS ANGEL GARCIA ■ Nafarroako Sagardogileen Elkarteko lehendakaria

JESUS ANGEL GARCIAK, NAFARROAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIAK, GIDATZEN DUEN LARRALDE SAGARDOTEGIA AITZINDARIA DA NAFARROAN ZEIN EUSKAL HERRI OSOAN. SAGARDO EKOLOGIKOA LANTZEN DUTE BERTAN, ETA HORI EGIAZTATZEN DUEN ZIURTAGIRIA (CPAEN) DUEN LEHENBIZIKO SAGARDOTEGIA DA, ARDURADUNAREN HITZETAN.

«DOLARE» IZENA

«Sagardi ugari dago Baztanen, sagar mota mingots batzuk galdu diren arren. Hamaika etxe ere badaude Dolare izena dutenak»



Iagoñi MANTEROLA | ARGAZKI PRES

Sagardi ugari dago Baztanen, sagar mota mingots batzuk galdu diren arren. Oraindik etxean sagardoa egiten duten baserri ugari dago; beraz, sagardogintza ez da arrotza. Hamaika etxe badaude, baita, Dolare izena dutenak.

Batez ere Nafarroako iparraldeko aldean dago ohitura; egun, hala ere, Nafarroa osoan dago sagardotegira joateko ohitura. Alta, sagardorik ekoizten ez duten sagardotegiak daude, eta batez ere, dastatze garaian igartzen da alde hori; ekoizleek garai horretan dastatzea eskaintzen dugu, eta gainerakoek ez. Bigarren hartzidura garaian da hau; oraindik sagardoa bukatu gabe dago, eta ez dago botilaratzeko moduan, baina gutxi gorabehera ikusten da nolako sagardoa izango den. Azken Kirikoketa Egunean inguruko sagardoak dastatzea egin genuen, eta 12-14 sagardo ezberdin gozatu genituen.

Kirikoketa Egunez gainera beste ekimen batzuk ere antolatzen dituzue, ezta?

Bai, bestelako ekimenak ere egiten ditugu, batez ere, sagardoa ezagutzera emateko. Bertako produktu bat da, ardoa bezala. Gu sagardogileak gara eta Nafarroako iparraldea sagardogilea da; guk defendatu egin behar dugu geurea. Nekazaritza eta enologia turismoa garrantzitsua izan da gune honetan, eta are gehiago indartzea da gure helburua.

OTSYA ENEA
Sagardotegia

DOLARE SAGARDOTEGIA

Osinaga Auzoa • Tf. (943) 55 68 94 • HERNANI

EL TURISMO OFRECE NUEVAS OPORTUNIDADES Y PLANTEA RETOS A LAS SIDRERÍAS

El sector turístico es quizá uno de los menos afectados por la actual coyuntura económica, a tenor de los datos oficiales que periódicamente se hacen públicos. Esa puede ser una de las razones por las que el sector sidrero está realizando, poco a poco, una apuesta por captar una parte de esa afluencia de foráneos a Euskal Herria, mostrando un producto natural autóctono con cientos de años de historia y una cultura muy rica. De momento, no son muchas las sidrerías que han iniciado ese cami-

no, pero se espera que se incorporen otras poco a poco.

La simbiosis entre turismo y sidra natural está entre los retos a desarrollar, y para ello es preciso hacerlo con autenticidad. No basta con ofrecer la bebida degustada de una manera "exótica" o ofrecer un menú sabroso. Si se quiere captar turismo, que quienes se acerquen a una sidrería repitan y transmitan su experiencia cuando regresen a sus lugares de procedencia, es preciso ofrecerles algo novedoso para ellos, auténtico, que refleje, tópicos al margen, lo que es el mundo de la sidra natural en Euskal Herria.

Algo de esto es lo que pretendió transmitir Jakoba Errekondo, experto conocedor de muchos aspectos del pasado y del presente de la sidra, en una charla ofrecida en la sidrería Kalonje, de Igeldo, el mismo día que los igeldotarras estrenaban su condición de nuevo municipio.

Errekondo reflexionó sobre diversos aspectos relacionados con la sidra natural y puso en evidencia lo distante que está la realidad actual de la que él, de alguna manera, propugna, aunque sus opiniones no concuerden plenamente con la dinámica actual.

Una de sus primeras reflexiones es en realidad una constatación: «Conocemos muy poco de la historia y cultura de la sidra. Necesitamos que un grupo de historiadores se dediquen plenamente a investigar y saquen a la luz información de nuestro pasado relacionados con la sidra natural. El conocimiento del pasado enriquecerá el futuro».

Si se sabe que, hace siglos, la sidra tuvo una enorme importancia en la economía del país. «Se exportaban por barco miles de litros. Euskal Herria estaba llena de lagares similares al de Igartubeiti, en Ezkio-Itxaso. Los

vascos descubrieron, con sus largas travesías marítimas, la bondad de la sidra para superar el escorbuto y, asimismo, se puede considerar a nuestros antepasados como los padres de elaboración moderna de la sidra. Es curioso que los vascos, que llevaron variedades de manzana y técnicas al norte del Estado francés, de donde cruzaron el Atlántico hasta Norteamérica y de allí a Canadá, importemos ahora una variedad de manzana conocida como reineta de Canadá, que no es otra que nuestra Kanpandoja», informó Errekondo.



El sector sidrero vasco apuesta por mostrar un producto natural autóctono de larga historia.

Jos URBE | ARGAZKI PRESS

«Que vivan una experiencia especial y novedosa»

El turismo ofrece una buena oportunidad de negocio a las sidrerías. «Es una magnífica ocasión para difundir nuestra cultura de la sidra, y por tanto la de Euskal Herria. Para ello debemos empezar por conocer nuestra propia historia y explicarla en las visitas guiadas. Enseñar nuestros antiguos lagares y su ligazón con la historia y la vida del caserío.

Mostrar los manzanales, los recipientes para sidra y el valor de su madera. Ofrecer menús, incluso distintos del que ahora se considera típico, pero siempre con productos autóctonos, como forma de valorizar nuestras carnes, pescados, quesos... En definitiva -resumió Errekondo-, lograr que el turista que acuda a una sidrería viva una experiencia es-

pecial y novedosa, algo que no encuentra en otros lugares. Siempre con autenticidad».

Este experto se mostró crítico con la tendencia actual a la homogeneización de las sidras: «Se iguala todo: mismo endólogo, mismo proceso, mismas manzanas. Hemos copiado en eso a Asturias. Ahora hacemos trasiegos que hacen perder txinparta, cometemos la

barbaridad de escanciar desde muy alto y encima hacemos concursos de ello. Antes la variedad era un lujo. En una bodega había 15 kupelas y por tanto 15 sidras».

En opinión de Errekondo, las sidrerías están en una encrucijada. Tienen el reto de definir qué camino quieren tomar, a qué cliente dirigirse y con qué oferta.

GURUTZETA SAGARDOTEGIA, BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA SAGARDO NATUREALEAN

Egunero irekita, eguerdia eta gauetz. Igandetan ezik.

- * 20€ menua astelehen, astearte eta ostegun gauetan.
- * Asteazkenetan otxotea kantuz.
- * Enkarguz eskatu daitezkeenak: Bakailoa saltsan, kostila, Wagyu arrazako txuleta, (munduko haragi onena kontsideratua)



Gurutzeta Sagardotegian.
Oñate Bidea. Astigarraga. Gipuzkoa. Tel./Faxa: 943 55 22 42
e-mail: gurutzeta@gurutzeta.com · www.gurutzeta.com

